Bizkaia foru aldundia diputación foral

1/2026 EBAZPENA

Espedientea: RMT 11/2025

BATZORDEBURUA: María Eugenia Maté Mendieta

KIDEA: Nerea García Rodríguez

IDAZKARIA: Unai Aberasturi Cantera

[redacted] informazio publikoa eskuratzeko eskaera onartzen ez duen Lurralde Garapenerako zuzendari nagusiaren abenduaren 16ko 1156/2025 Ebazpenaren aurka erreklamazioa jarri du; Bizkaiko Foru Aldundiko Gardentasunaren Arloko Erreklamazio Batzordeak EBAZPEN hau eman du horretaz. María Eugenia Maté Mendieta andreak jardun du hizlari, eta Batzordearen iritzia adierazi du:

AURREKARIAK

1.- 2025eko azaroaren 26an [redacted] informazio publikoa eskuratzeko eskaera hau aurkeztu zion Bizkaiko Foru Aldundiari:

RESOLUCIÓN 1/2026

Expediente: RMT 11/2025

PRESIDENTA: María Eugenia Maté Mendieta

VOCAL: Nerea García Rodríguez

SECRETARIO: Unai Aberasturi Cantera

La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, compuesta por los miembros anteriormente expresados, ha dictado la siguiente RESOLUCIÓN ante la reclamación formulada por [redacted] contra la Resolución 1156/2025, de 16 de diciembre, del director general de Desarrollo Territorial, por la que se inadmite a trámite la solicitud de acceso a la información pública. Actúa como ponente María Eugenia Maté Mendieta, quien expresa el parecer de la Comisión

ANTECEDENTES DE HECHO

1.- El 26 de noviembre de 2025 [redacted] presentó la siguiente solicitud de acceso a información pública, dirigida a la Diputación Foral de Bizkaia:

*"COMO SOY TONTO, Y TAL COMO SE INDICA EN LA RESOLUCION 6/2025 DE LA COMISION VASCA DE ACCESO A LA INFORMACION Y SINO SE HA MENTIDO A ESTA COMISION, SE SOLICITA PARA CUANDO PREVEEN TENER LA INFORMACION QUE ESTAN ELABORANDO SOBRE LAS MODIFICACIONES EN ALGUNOS TRAMOS TAL COMO INDICA LA INFORMACION EN PRENSA DESDE LA DIPUTACION Y QUE SE ADJUNTA.*
*SI EXISTEN AL DIA DE DOY MODIFICACIONES AL RESPECTO Y SI LAS MODIFICACIONES SE HARAN DURANTE LA OBRA QUE ESTA EN CURSO, O ESPERARAN A FINALIZAR LAS OBRAS PARA GASTAR MAS.*
*DETALLES DE LOS GASTOS QUE SUPONEN LAS MODIFICACIONES EN CURSO Y LAS QUE SE ESTAN ELABORANDO TAL COMO SE HA INDICADO A LA COMISION.*
*ESPERO LA INFORMACION".*

2.- Lurralde Garapeneko zuzendari nagusiaren abenduaren 16ko 1156/2025 Ebazpenaren bidez, ez zen onartu eskaera, Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 22. artikuluan

2.- Por Resolución 1156/2025, de 16 de diciembre, del director general de Desarrollo Territorial, se inadmitió la solicitud basándose en el artículo 22 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia,

oinarrituta, eta adierazi zen eskatutako informazioa errepikakorra dela eta lehenago eman dela.

indicándose, que la información solicitada es reiterativa y ha sido facilitada con anterioridad.

3.- Aurreko Ebazpenaren aurka [redacted] Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan 2025eko abenduaren 29an gardentasunaren arloko erreklamazioa aurkeztu zuen. Idazkia Gardentasunaren Inguruko Erreklamazioen Batzorde honetan jaso zen eta 11/25 zenbakia esleitu zitzaion.

3.- Contra dicha Resolución, [redacted] presentó el día 29 de diciembre de 2025, a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia, reclamación en materia de transparencia. El escrito se recibió en esta comisión de reclamaciones en materia de Transparencia, que le asignó el número 11/25.

4.- Erreklamazioaren arrazoietan honako hau adierazten da:

4.- En la motivación de la reclamación se indica lo siguiente:

*"SE SOLICITA TODA LA INFORMACION SOBRE EN QUE LUGARES SE ESTA TOMANDO MEDIDAS ASI COMO A CUANTO IMPORTE ASCIENDEN LAS MODIFICACIONES Y QUE PAGAMOS TODOS A ESCOTE*
*Incumplimiento de la Ley 7/2021, al no considerarse en los proyectos de la Diputacion de la Pasarela Peatonal All Iron y Paseo-Boulevard Peatonal de Ciclable los riesgos asociados al Cambio Climático y en concreto los riesgos por subida del nivel del mar e inundación marina.*
*QUE ESTAN HACIENDO CON Plan de Gestión del Riesgo de Inundación del 2022-2027..*
*SE SOLICITA INFORMACION DETALLADA DE LOS PLANES EXISTENTES Y COMO SE ESTAN APLICANDO A LAS OBRAS PARA EVITAR INUNDACIONES EN UN TERRENO YA INUNDABLE Y QUE PERMITIERON CONSTRUIR. ASI COMO DETALLE DE LOS COSTES QUE ESTAMOS SOPORTANDO. GRACIAS".*

5.- Batzorde horrek egindako erreklamazioaren edukiari buruzko txostena eskatu zion Azpiegitura eta Lurralde Garapen Sailari, eta Azpiegiturak Garatzeko Zuzendariordeak honako hau jakinarazi du:

5.- Esta Comisión solicitó al Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, informe en relación con el contenido de la reclamación formulada y la subdirección de Desarrollo de Infraestructuras ha informado lo siguiente:

*"Barakaldo eta Erandio arteko oinezkoentzako eta bizikletentzako zubiaren eta Bulebarraren jarduketak, gaur egun gauzatzen ari direnak, lehendik dauden parametro hidraulikoen arabera eta uren arloan eskumena duen agentziaren baimenarekin proiektatu dira, uholde-arriskua kudeatzeko araudi aplikagarriaren arabera, eta ez dute eragin gaur egun Altzaga inguruan identifikatuta dagoen arriskua handitzea. Nolanahi ere, gogorarazten da zona hori urpean gera daitekeela aurretik ere ezaguna den egoera batean, eta aipatutako obrek ez dutela ezabatzen edo larriagotzen. Unean uneko esku-hartzeak dira, beharrezkoak eta proportzionatuak, eta ez dira Uren*

*"Las actuaciones del Puente peatonal y ciclable entre Barakaldo y Erandio y del Bulevar, actualmente en ejecución, se han proyectado con arreglo a los parámetros hidráulicos existentes y con la Autorización de la Agencia competente en materia de aguas conforme a normativa aplicable en materia de gestión del riesgo de inundación, sin que generen un incremento del riesgo actualmente identificado en el entorno de Altzaga. Se recuerda, en todo caso que el carácter inundable de la zona es una circunstancia preexistente y conocida, y que las obras mencionadas no la eliminan ni la agravan. Son intervenciones puntuales, necesarias y proporcionadas, no sustitutivas de*

*Administrazioaren eskumeneko egitura-neurrien ordezkoak.*

*las medidas estructuras competencia de la Administración de Aguas.*

*Aldi berean, sail honek lankidetza leial eta jarraitua du inplikatutako administrazioekin, uholde-arriskuaren arazoari aurre egiteko. Horretarako, berariazko azterlan teknikoak, azterketa zehatzak eta administrazioen arteko koordinazioa behar dira, eta horretarako arrazoizko denbora behar da.*

*De forma paralela, este Departamento mantiene una colaboración leal y continua con las administraciones implicadas para abordar la problemática de la inundabilidad, lo que exige estudios técnicos específicos, análisis detallados y una coordinación interadministrativa que requiere un tiempo razonable.*

*Proiektuen balizko aldaketei eta haien eragin ekonomikoari dagokienez, azken definizioa eta balorazioa idazten eta kuantifikatzen ari dira gaur egun. Behin lantze-prozesu hori amaituta, eta gardentasun-araudiaren arabera, dagokion informazioa emango da.*

*Respecto a las eventuales modificaciones de los proyectos y su afección económica, su definición final y valoración están actualmente en redacción y cuantificación. Una vez concluido dicho proceso de elaboración y conforme a la normativa de transparencia, se facilitará la información que proceda.*

*2022-2027ko Uholde Arriskua Kudeatzeko Planari eta interesdunak bere erreklamazioan aipatzen dituen planei dagokienez, ez dira SAIP 105/2025 espedientearen (20250200000223O439 espedientea) xede, eta horren ondorio da erreklamazio hau, beraz, ez dira txosten honen xede ".*

*En relación con el Plan de Gestión del Riesgo de Inundación del 2022-2027 y los planes existentes que menciona el interesado en su reclamación, no son objeto del SAIP 105/2025 (Expediente 20250200000223O439) del que trae causa la presente reclamación, por lo que tampoco son objeto del presente informe".*

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

Lehena. Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 27. artikuluaren bidez sortu zen Gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzordea.

Primero. La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia se crea por el artículo 27 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia.

Foru Arau horren 29.1.1. artikuluaren arabera, 2. artikuluarekin lotuta, Erreklamazioen Batzordea izango da Bizkaiko Foru Aldundiko, foru-organismo autonomoetako, foruko enpresa-erakunde publikoetako, foruko merkataritza-sozietateetako, foru-fundazioetako, foru-partzuergoetako eta zuzenbide publikoko beste foru-erakunde batzuetako (lehen aipatutakoez gain) informazio publikoa eskuratzeko eskubidea berariaz edo ustez ezesten denean aurkezten diren erreklamazioak ebazteko eskumenduna.

De conformidad con el artículo 29.1.1, en relación con el artículo 2, ambos de esta Norma Foral, la Comisión de Reclamaciones será la competente para resolver las reclamaciones frente a la denegación expresa o presunta del derecho de acceso a la información pública de la Diputación Foral de Bizkaia y los organismos autónomos forales, las entidades públicas empresariales forales, las sociedades mercantiles forales, las fundaciones forales y los consorcios forales y otros entes forales de derecho público distintos de los mencionados anteriormente.

Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiko Gardentasunaren Inguruko Erreklamazioen

Por su parte, el Reglamento de organización y funcionamiento de la Comisión de

Batzordearen antolakuntza- eta funtzionamendu-araudiak, Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 26ko 128/2016 Foru Dekretuaren bidez onartuak, 18. artikuluan ezartzen du Batzordearen Osoko Bilkuraren eskumena dela, besteak beste, honako hau: *"a) Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzea tazituki zein espresuki ukatzea dela- eta aurkezten diren erreklamazioak ebaztea, 1/2016 Foru Arauan ezarritakoaren arabera."*

Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 128/2016, de 26 de julio, establece en su artículo 18 que, entre otras, es competencia del Pleno de la Comisión: *"a) Resolver las reclamaciones contra la denegación expresa o tácita del ejercicio del derecho de acceso a la información pública en los términos establecidos en la Norma Foral 1/2016."*

Bigarrena. Instantzia honetan, erreklamaziogileak bere garaian Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailari aurkeztutako informazio-eskaera errepikatu besterik ez du egiten, erreklamazioaren oinarri izan zitekeen arau-agindurik aipatu gabe.

Segundo. En la presente instancia el reclamante se reitera en el contenido de la solicitud de información formulada en su día, alude a un incumplimiento de la Ley 7/2021 e incorpora una nueva petición relacionada con diferentes planes.

Hirugarrena. Lehen aipatutako otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauak 18.1. artikuluan aitortzen du pertsona fisiko eta juridikoek eskubidea dutela informazio publikoa eskuratzeko. Informazio publikoa, Foru Arau beraren 17.2 artikuluaren arabera, honako hau da: *(…) foru arau honen aplikazio-eremuan sartutako erakundeek duten edozein eduki edo dokumentu, euskarria edozein dela ere, erakunde horiek beren eginkizunen barruan egin, aldatu edo eskuratu badituzte eduki edo dokumentuok (…)"*.

Tercero. La Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, precitada reconoce, en su artículo 18.1, el derecho de las personas físicas y jurídicas a acceder a la información pública, entendida ésta, según el artículo 17.2 de la misma Norma Foral, como: "*( … ) cualquier tipo de contenido o documento, independientemente del soporte que se utilice, que obre en poder de las entidades previstas en el ámbito de aplicación de la presente Norma Foral y que hayan sido elaborados, modificados o adquiridos en el ejercicio de sus funciones"*.

Beraz, arauak informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen eremu materiala mugatzen du, haren kontzeptu zabal batetik abiatuta, baina haren irismena mugatzen du, eta haren izaera publikoarekin lotutako bi baldintza betetzea eskatzen du: (a) foru-arauak behartutako erakunderen baten esku egotea, eta (b) esleitu zaizkion funtzioak eta eskumenak gauzatzean egina edo lortua izatea.

Por tanto, la norma delimita el ámbito material del derecho al acceso a la información pública a partir de un concepto amplio de ésta, pero acota su alcance exigiendo la concurrencia de dos requisitos vinculados con su naturaleza "*pública*": (a) que se encuentre en poder de alguna de las entidades a las que la Norma Foral obliga, y (b) que haya sido elaborada u obtenida en el ejercicio de las funciones y competencias que tiene encomendadas.

Laugarrena. Aipatzekoa da erreklamazio honen xede den SAIPen edukiaren eta 6/2025 zenbakiarekin batzorde honetan aurkeztutako erreklamazioa eragin zuen SAIPen edukiaren arteko funtsezko berdintasuna, ezetsi egin baitzen (6/2025 Ebazpena), hargatik eragotzi gabe zuzendaritza nagusiari egindako

Cuarto. Cabe señalar la sustancial identidad entre el contenido de la SAIP objeto de la presente reclamación y el de la SAIP que motivó la reclamación presentada ante esta comisión con el nº 6/2025, que fue desestimada (Resolución 6/2025), sin perjuicio del requerimiento realizado a la

errekerimendua, informazioa prestatzeko prozesua amaitu ondoren interesdunari helaraz dakion.

Prestatzen ari den informazioa da, Lurralde Garapeneko Zuzendaritza Nagusiak bere garaian justifikatu zuen bezala, eta berriro justifikatu du Azpiegituren Garapeneko Zuzendariordetzak bosgarren aurrekarian transkribatutako txostenean.

Bosgarrena. Azken batean, bidezkoa izan zen Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 22.a) artikuluan aurreikusitakoa aplikatzea, eta ez onartzea [redacted] informazio publikoa eskuratzeko egindako eskaera, eta, beraz, ezetsi egin zen haren erreklamazioa.

Seigarrena. Ezespena, gainera, Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko 7/2021 Legea ez betetzeari buruz egiten den erreferentziara ere zabaldu behar da. Lege hori ez dator bat batzorde honen eskumenekin, ezta plan batzuei buruz eskatzen den informazioarekin ere, errekurritutako ebazpena eragin zuen SAIPen planteatu ez zen gaia baita.

Horregatik guztiagatik, Gardentasunaren arloko Erreklamazio Batzorde honek, transkribatu dugun ebazpenean hartutako irizpidea errepikatuz, honako hau erabaki du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. [redacted] Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegitura eta Lurralde Garapen Saileko Lurralde Garapeneko zuzendari nagusiaren abenduaren 16ko 1156/2025 Ebazpenaren aurka aurkeztutako erreklamazioa ezestea, laugarren, bosgarren eta seigarren oinarrietan adierazitako baldintzetan.

BIGARRENA. Ebazpen hau errekurtsogileari jakinaraztea eta Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saileko Lurralde

dirección general a fin de que una vez finalizado el proceso de elaboración la información sea facilitada al interesado.

Se trata de una información en curso de elaboración como justificó en su momento la dirección general de Desarrollo Territorial y ha vuelto a justificar la subdirección de Desarrollo de Infraestructuras en el informe transcrito en el quinto antecedente de hecho.

Quinto. En definitiva fue procedente aplicar lo previsto en el artículo 22.a) de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia e inadmitir la solicitud de acceso a información pública formulada por [redacted], procediendo en consecuencia la desestimación de su reclamación.

Sexto. La desestimación ha de hacerse además extensiva a la referencia que se hace a un posible incumplimiento de la Ley 7/2021, de cambio climático y transición energética, cuestión ajena a las competencias de esta comisión, y a la información que se solicita en relación con unos planes al tratarse de una cuestión que no fue planteada en la SAIP que originó la Resolución recurrida.

Por todo lo cual, esta Comisión de reclamaciones en materia de Transparencia, reiterándose en el criterio adoptado en la resolución que hemos transcrito, acuerda:

RESOLUCIÓN

PRIMERO. Desestimar la reclamación promovida por [redacted] contra la Resolución 1156/2025, de 16 de diciembre, del director general de Desarrollo Territorial del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia, en los términos señalados en los fundamentos cuarto, quinto y sexto.

SEGUNDO. Notificar esta resolución a la persona recurrente y comunicarla a la dirección general de Desarrollo Territorial del

Garapenerako Zuzendaritza Nagusiari eta Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Saileko Gobernamendu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritza Nagusiari jakinaraztea.

HIRUGARRENA. Ebazpen honek, behin betikoa denak, administrazio-bidea agortzen du. Dena dela, beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Salan, jakinarazpena egiten denetik eta bi (2) hilabeteko epearen barruan.

Hori guztia, Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 26ko 128/2016 Foru Dekretuaren (Bizkaiko Foru Aldundiaren gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzordearen eta Bizkaiko foru-sektore publikoko erakundeen Antolaketa eta Funtzionamenduari buruzko Araudia onartzen duena) 27. artikuluan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/98Legearen 10. eta 46. artikuluetan ezarritako irizpideen arabera.

Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial y a la dirección general de Buen Gobierno, Atención Ciudadana y Servicios Digitales del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales.

TERCERO. La presente resolución, que es definitiva, agota la vía administrativa y contra la misma se podrá interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos (2) meses a contar del día siguiente al de su notificación.

Todo ello de conformidad con lo dispuesto en el artículo 27 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 128/2016, de 26 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de Organización y Funcionamiento de la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia y de las entidades del sector público foral de Bizkaia, y en los artículos 10 y 46 de la Ley 29/98, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

Sin./Fdo.: NEREA GARCIA RODRIGUEZ - 2026-02-09
Batzordekide titularra
Vocal titular

Sin./Fdo.: UNAI ABERASTURI CANTERA - 2026-02-09
Idazkaria
El Secretario

Sin./Fdo.: MARIA EUGENIA MATE MENDIETA - 2026-02-09
Presidentea
La Presidenta